| | |
|---|---|
| **GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2015EKO IRAILAREN 15EAN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 15 DE SEPTIEMBRE DE 2015.** |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTA** |

Keltse Eiguren Alberdi And.

| | |
|---|---|
| **BATZARKIDEAK** | **V O C A L E S** |

Joseba Arregui Martínez Jn.
Álvaro González Pérez Jn.
Elena Coria Yanguas And.
Koldo Iturbe Mendilibar Jn.
Jose Luis Landa Arteche Jn.

| | |
|---|---|
| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamabosteko irailaren hamabostean, lehenengo alkateordea, Keltse Eiguren Alberdi andrea bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

Lehendakariak, legeak eskatzen duen kide- kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a quince de septiembre de dos mil quince, y bajo la presidencia de la primera teniente de alcalde, dña. Keltse Eiguren Alberdi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

La presidenta, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado

siguiente:

**305.- 2015EKO IRAILAREN 8AN EGINDAKO OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA.**

**305.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 8 DE SEPTIEMBRE DE 2015.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2015eko irailaren 8ko bilerakoa, hain zuzen.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 8 de septiembre de 2015.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD Y EUSKERA**

**306.- SANTO-ARESTIN DEN LURSAILA HERRI-JABARIAREN EMAKIDAREN TRUK TELEFÓNICA MÓVILES ESPAÑA, SA, BALTZUAK ORDAINKIZUN DUEN HILEKO KANONA EGUNERATZEA.**

**306.- ACTUALIZACIÓN DEL CANON MENSUAL PAGADERO POR LA CONCESIÓN DEMANIAL DEL TERRENO SITO EN SANTO ARESTI A FAVOR DE TELEFÓNICA MÓVILES ESPAÑA.**

Ogasun, Ekonomia-Sustapen eta Giza Baliabideetako Arloko zinegotzi arduradunak, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Hacienda, Promoción Económica y Recursos Humanos, se acordó:

1.- Santo Arestin (Loiu) dagoen udalaren 5 m2ko lur-zati baten jabari-emakidagatik ordaindu behar den hileko kanona eguneratzea, Telefónica Móviles España, S.A.ren alde, EAEko urte arteko KPIaren arabera, 2015eko abuztutik 2016ko uztailera arteko epean, 541,21 eurotan.

1.- Actualizar el canon mensual pagadero por la Concesión Demanial de una porción de 5 m2 del terreno municipal sito en Santo Aresti (Loiu) a favor de Telefónica Móviles España, S.A, en función del IPC interanual de la CAPV del periodo comprendido entre agosto de 2015 y julio de 2016, a 541,21€.

2.- Ebazpen hau Ondare Sailari eta Telefónica Móviles España-ri jakinaraztea.

2.- Notificar esa resolución al Departamento de Patrimonio y a Telefónica Móviles España.

**307.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAKO ZERBITZUAREN**

**307.- RESOLUCIÓN DE LA SOLICITUD FORMULADA POR**

**KONTRATUA ESLEITUA DAUKAN BALTZUAREN ESKAINTZAREN ALDETIK MILAGROS AGUINAGALDE ORTEGA ANDREAK EGINDAKO ESKAERAREN GAINEAN ERABAKITZEA.**

Kontratazio, informazio sistemak eta kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

EGITATEZKO AURREKARIAK
LEHENENGOA.- 2015eko abuztuaren 14an sarrera erregistroan sartu zen Milagros Aguinagalde Ortega andreak egindako idazkia, GETXOKO UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN kontratuko "Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren proiektu teknikoko pleguak" eta "Adjudikaziodunaren eskaintza" eskatzen.

Eskatzailea "langile eta zerbitzu honen sindikatu ordezkari gisa" aurkezten da bere idazkian. Kontratu-espedientean Aguinagalde andrea zerbitzuari atxikitako langilea dela ageri da.

BIGARRENA.- Eskatzailea Kontratazio Zerbitzuko bulegoetan egon da eta berak ahoz argitu du bere eskaera esleipendunaren eskaintzari dagokiola soilik (izan ere, pleguak baditu) eta erreferentziazko zerbitzurako esleitutako azkeneko kontratuari baino ez. Hau da, 5357 zenbakidun kontratu-espedientea, URGATZI SL entitateari esleitua (IFK: B-48678718), 2015eko maiatzaren 19ko saioan Tokiko Gobernu Batzarraren 195. Erabakiaren bidez onartua.

HIRUGARRENA: Kontratazioa

**MILAGROS AGUINAGALDE ORTEGA DE LA OFERTA DE LA ADJUDICATARIA DEL CONTRATO DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

ANTECEDENTES DE HECHO
PRIMERO.- En fecha 14 de agosto de 2015 registró su entrada escrito presentado por Dña. Milagros Aguinagalde Ortega solicitando "Pliegos Proyecto Técnico del SAD" y "Oferta de la adjudicataria" del contrato de SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO (SAD) DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO.

La solicitante se identifica en su escrito como "trabajadora y como representante sindical de este servicio". En el expediente contractual consta, efectivamente, que la Sra. Aguinagalde figura entre el personal adscrito al servicio.

SEGUNDO.- Personada en las oficinas del Servicio de Contratación, la propia solicitante aclara, verbalmente, que su solicitud se refiere únicamente a la oferta de la adjudicataria (puesto que ya dispone de los pliegos) y únicamente al último contrato adjudicado para el servicio de referencia, es decir, el expediente contractual nº 5357, adjudicado a la entidad "URGATZI, S.L.", con C.I.F.: B-48678718, mediante acuerdo nº 195 adoptado por la Junta de Gobierno Local en su sesión de fecha 19/5/2015.

TERCERO.- El artículo 10 del Pliego de

eraentzen duten ekonomia eta administrazio klausulen pleguko 10. artikuluak ondokoa adierazten du: kontratu honetan kontratu-subrogazioa egingo da. Beraz, adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatu beharko da dokumentazio osagarrian zehaztutako lan harremanetan.

cláusulas económico-administrativas que rigen la contratación (PCA), establece que: el presente contrato será objeto de subrogación contractual, quedando obligado el adjudicatario a subrogarse como empleador en las relaciones laborales especificadas en la documentación complementaria.

LAUGARRENA.- Administrazio Klausulen Pleguaren 19. artikuluko 5. puntua aplikatuz, "Urgatzi"k konfidentzial izendatu zuen bere proiektu teknikoa.

CUARTO.- En aplicación del punto 5 del artículo 19 del PCA, "Urgatzi" designó como confidencial su proyecto técnico.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.- Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 31. artikuluak ondokoa xedatzen du: "Administrazio prozedurako interesdunak izango dira honako hauek: (...) Prozedura hasi aurretik, prozeduran hartzen den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak".

Manu horrekin bat etorriz eta eskatzailea zerbitzuan subrogatu beharreko langilea dela kontuan hartuz, bere eskubideak prozeduran ukitu daitezke (kontratua burutzeko aldian, kasu honetan), interesduntzat jo behar da Administrazio Prozedurako Legearen ondorioetarako.

II.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina (SPKLTB), azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa.

Zehazki, aipatutako testuaren 153. artikuluak kontratu-espediente batean argitaratu ezin den informazioari egiten dio erreferentzia. Urgatziri dagokion konfidentzialtasunak manu honi erantzuten dio.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- El artículo 31 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, dispone que: "Se consideran interesados en el procedimiento administrativo: (...) Los que, sin haber iniciado el procedimiento, tengan derechos que puedan resultar afectados por la decisión que en el mismo se adopte."

De acuerdo con tal precepto y habida cuenta de que la solicitante es una trabajadora a subrogar en el servicio, cuyos derechos pueden resultar afectados en el procedimiento (en la fase de ejecución del contrato, en este caso), ha de ser considerada como interesada a los efectos de la ley de procedimiento administrativo.

II.- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

En concreto, el artículo 153 del texto citado se refiere a la información no publicable dentro de un expediente contractual. La designación de confidencialidad realizada por Urgatzi responde a este precepto.

III.- 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautzen dituena, apirilaren 18ko 781/1986 LEDak onartutako Testu Bategina.

III.- Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril

IV.- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren arabera aplikatzekoa zaion oinarrizko legeria (tokiko erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoa onartzen du errege dekretu horrek), eta horri lotuta dagoen eta aplikatu behar den gainerako legeria.

IV.- La legislación básica que le sea de aplicación según el Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales y demás legislación conexa que resulte de aplicación.

V.- Aurkeztutako eskaerari erantzuten dion ebazpena onartzeko zilegitasuna Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio, eskatutako dokumentazioa ageri den kontratazio-espedientean kontratazio erakunde eskuduna delako.

V.- La legitimación para adoptar la resolución que da contestación a la solicitud presentada corresponde a la Junta de Gobierno Local, por ser el órgano de contratación competente en el expediente de contratación en el que consta la documentación pedida.

ERABAKI PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA: Milagros Aguinagalde Ortega andreak egindako dokumentazio eskaera ezestea, Urgatzi S.L. entitateak (GETXOKO UDALEKO ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAren (EELZ) kontratuaren esleipendunak) aurkeztutako eskaintza teknikoari buruzkoa; deskribatutako aurrekariekin batera azaldutako zuzenbide oinarriengatik.

PRIMERO: Desestimar, por los fundamentos jurídicos reseñados junto con los antecedentes descritos, la solicitud de documentación efectuada por Dña. Milagros Aguinagalde Ortega en lo relativo a la oferta técnica presentada por la entidad "Urgatzi, S.L.", adjudicataria del contrato de SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO (SAD) DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO.

BIGARRENA: Deskribatutako aurrekariekin batera azaldutako zuzenbide oinarriengatik, Milagros Aguinagalde Ortega andreak egindako dokumentazio eskaera ONARTZEA, "Urgatzi, S.L." erakundeak aurkeztutako eskaintzaren gainerako zatiaren ingurukoa, hau da, eskaintza ekonomikoa. Udal honetako Kontratazio Zerbitzuaren bulegoetan eskatzailearen eskura egongo da eta

SEGUNDO Estimar, por los fundamentos jurídicos reseñados junto con los antecedentes descritos, la solicitud de documentación efectuada por Dña. Milagros Aguinagalde Ortega en lo relativo al resto de la oferta presentada por la entidad "Urgatzi, S.L.", a saber, su oferta económica, la cual queda a disposición de la solicitante en las dependencias del Servicio de Contratación de este

nahi izatekotan honen kopia bat lor dezake.

Ayuntamiento, para que pueda obtener una copia de la misma si lo desea.

**<u>308.- EKINTZAILEENTZAKO ETA ENPRESENTZAKO AHOLKULARITZARAKO ESLEITUTAKO ZERBITZUA LUZATZEA.</u>**

**<u>308.- PRÓRROGA DEL SERVICIO DE ASESORAMIENTO A PERSONAS EMPRENDEDORAS Y EMPRESAS.</u>**

Kontratazio, informazio sistemak eta kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: PERTSONA EKINTZAILE ETA ENPRESETARAKO AHOLKULARITZA-ZERBITZUKO I, II, III, V, VI, VII, VIII eta IX. Loteak URTEBETEZ luzatzea (lehen luzapena eta bakarra), 2015/11/12tik 2016/11/11ra, ondoren aipatutako enpresei eta adierazten diren zenbatekoetan:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (primera y única prórroga), desde el 12/11/2015 al 11/11/2016, los Lotes I, II, III, V, VI, VII, VIII y IX del SERVICIO DE ASESORAMIENTO A PERSONAS EMPRENDEDORAS Y EMPRESAS a las empresas y por los importes que se señalan a continuación:

- I. LOTEA: PERTSONA EKINTZAILEENTZAKO AHOLKULARITZA OROKORRA, "BIKUMÉ, S.L." merkataritza-sozietateari (IFK:B20821104), zerbitzuaren 50 euro/orduko zenbatekoan gehi BEZaren % 21i dagozkion 10,50 euro.
Lote horretarako urteko gehieneko aurrekontua 52.500 euro da (BEZaren % 21 barne).

- LOTE I: ASESORAMIENTO GENERALISTA A PERSONAS EMPRENDEDORAS, a la mercantil "BIKUMÉ, S.L." con C.I.F. nº B20821104, por un importe de 50 euros/hora de servicio más 10,50 euros correspondientes al 21% de I.V.A.
El presupuesto máximo anual para este lote es de 52.500 euros (21% I.V.A. incluido).

- II. LOTEA: OSTALARITZAKO SALTOKI ETA ESTABLEZIMENDUETARAKO AHOLKULARITZA OROKORRA, "IBERMAN AGERINTERIM SERVICES, S.L." merkataritza-sozietateari (IFK: B95640272), zerbitzuaren 60 euro/orduko zenbatekoan gehi BEZaren % 21i dagozkion 12,60 euro.
Lote horretarako urteko gehieneko

- LOTE II: ASESORAMIENTO GENERALISTA A COMERCIOS Y ESTABLECIMIENTOS DE HOSTELERÍA, a la mercantil "IBERMANAGER INTERIM SERVICES, S.L." con C.I.F. nº B95640272, por un importe de 60 euros/hora de servicio más 12,60 euros correspondientes al 21% de I.V.A.
El presupuesto máximo anual para este lote es de 15.000 euros (21% I.V.A.

aurrekontua 15.000 euro da (BEZaren % 21 barne).

incluido).

- III. LOTEA: MERKATARITZA ETA OSTALARITZAKOAK EZ DIREN ENPRESETARAKO AHOLKULARITZA OROKORRA, "IBERMAN AGERINTERIM SERVICES, S.L." merkataritza-sozietateari (IFK: B95640272), zerbitzuaren 60 euro/orduko zenbatekoan gehi BEZaren % 21i dagozkion 12,60 euro.

- LOTE III: ASESORAMIENTO GENERALISTA A EMPRESAS NO COMERCIALES NI DE HOSTELERÍA, a la mercantil "IBERMANAGER INTERIM SERVICES, S.L." con C.I.F. nº B95640272, por un importe de 60 euros/hora de servicio más 12,60 euros correspondientes al 21% de I.V.A.

Lote horretarako urteko gehieneko aurrekontua 15.000 euro da (BEZaren % 21 barne).

El presupuesto máximo anual para este lote es de 15.000 euros (21% I.V.A. incluido).

- V. LOTEA: TEKNOLOGIA BERRI ETA ON LINE MARKETINEKO AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA, "SERIKAT CONSULTORÍA E INFORMÁTICA, S.A." merkataritza-sozietateari (IFK: A48476006), zerbitzuaren 59 euro/orduko gehi BEZaren % 21i dagozkion 12,39 euro.

- LOTE V: ASESORAMIENTO ESPECIALIZADO EN NUEVAS TECNOLOGÍAS Y MARKETING ON LINE a la mercantil "SERIKAT CONSULTORÍA E INFORMÁTICA, S.A." con C.I.F. nº A48476006, por un importe de 59 euros/hora de servicio más 12,39 euros correspondientes al 21% de I.V.A.

Lote horretarako urteko gehieneko aurrekontua 30.000 euro da (BEZaren % 21 barne).

El presupuesto máximo anual para este lote es de 30.000 euros (21% I.V.A. incluido).

- VI. LOTEA: MERKATARITZA-ARLOKO AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA, "SERGALU21, S.L." merkataritza-sozietateari (IFK: B95386538), zerbitzuaren 59 euro/orduko gehi BEZaren % 21 dagozkion 12,39 euro.
Lote horretarako urteko gehieneko aurrekontua 30.000 euro da (BEZaren % 21 barne).

- LOTE VI: ASESORAMIENTO ESPECIALIZADO EN EL ÁREA COMERCIAL, a la mercantil "SERGALU 21, S.L." con C.I.F. nº B95386538, por un importe de 59 euros/hora de servicio más 12,39 euros correspondientes al 21% de I.V.A.
El presupuesto máximo anual para este lote es de 30.000 euros (21% I.V.A. incluido).

- VII. LOTEA: EKONOMIA- ETA FINANTZA-ARLOKO AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA, "SERGALU21,

- LOTE VII: ASESORAMIENTO ESPECIALIZADO EN EL ÁREA ECONÓMICO-FINANCIERA, a la mercantil "SERGALU 21, S.L." con

S.L." merkataritza-sozietateari (IFK: B95386538), zerbitzuaren 59 euro/orduko gehi BEZaren % 21 dagozkion 12,39 euro.
Lote horretarako urteko gehieneko aurrekontua 20.000 euro da (BEZaren % 21 barne).

- VIII. LOTEA: LEGE ETA ZERGEN ARLOKO AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA, "SERGALU 21, S.L." merkataritza-sozietateari (IFK: B95386538), zerbitzuaren 59 euro/orduko gehi BEZaren % 21 dagozkion 12,39 euro.
Lote horretarako urteko gehieneko aurrekontua 10.000 euro da (BEZaren % 21 barne).

- IX. LOTEA: ANTOLAKETA ETA GIZA BALIABIDEETAKO AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA, "SERGALU21, S.L." merkataritza-sozietateari (IFK: B95386538), zerbitzuaren 59 euro/orduko gehi BEZaren % 21 dagozkion 12,39 euro.
Lote horretarako urteko gehieneko aurrekontua 7.500 euro da (BEZaren % 21 barne).

BIGARRENA: "BIKUMÉ, S.L." merkataritza-sozietateari (IFK: B20821104) honako lote hau URTEBETEZ luzatzea (lehen luzapena eta bakarra), 2015/12/04tik 2016/11/03ra: PERTSONA EKINTZAILE ETA ENPRESETARAKO AHOLKULARITZA-ZERBITZUEN (2014. URTEA) prozedura irekiko ARLO ESTRATEGIKOKO AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUARI buruzko IV. LOTEA, zerbitzuaren 67 euro/orduko gehi BEZaren % 21i dagozkion 14,07 euro.

C.I.F. nº B95386538, por un importe de 59 euros/hora de servicio más 12,39 euros correspondientes al 21% de I.V.A.
El presupuesto máximo anual para este lote es de 20.000 euros (21% I.V.A. incluido).

- LOTE VIII: ASESORAMIENTO ESPECIALIZADO EN EL ÁREA LEGAL Y FISCAL, a la mercantil "SERGALU 21, S.L." con C.I.F. nº B95386538, por un importe de 59 euros/hora de servicio más 12,39 euros correspondientes al 21% de I.V.A.
El presupuesto máximo anual para este lote es de 10.000 euros (21% I.V.A. incluido).

- LOTE IX: ASESORAMIENTO ESPECIALIZADO EN ORGANIZACIÓN Y RECURSOS HUMANOS a la mercantil "SERGALU 21, S.L." con C.I.F. nº B95386538 por un importe de 59 euros/hora de servicio más 12,39 euros correspondientes al 21% de I.V.A.
El presupuesto máximo anual para este lote es de 7.500 euros (21% I.V.A. incluido).

SEGUNDO: Prorrogar durante UN AÑO (primera y única prórroga), desde el 04/12/2015 al 03/12/2016, a la mercantil "BIKUMÉ, S.L." con C.I.F. nº B20821104, el LOTE IV sobre ASESORAMIENTO ESPECIALIZADO EN EL ÁREA ESTRATÉGICA del procedimiento abierto de los SERVICIOS DE ASESORAMIENTO A PERSONAS EMPRENDEDORAS Y EMPRESAS (AÑO 2014) por un importe de 67 euros/hora de servicio más 14,07 euros correspondientes al 21% de I.V.A.

Lote horretarako urteko gehieneko aurrekontua 20.000 euro da (BEZaren % 21 barne).

HIRUGARRENA: 200.000 euroko beharrezko gastua ordaintzeko baimena ematea eta xedatzea, BEZa barne, aipatutako luzapenei aurre egiteko.

El presupuesto máximo anual para este lote es de 20.000 euros (21% I.V.A. incluido).

TERCERO: Autorizar y disponer el gasto necesario, por importe de 200.000.-€, I.V.A. Incluido para hacer frente a las citadas prórrogas.

**309.- EKINTZAILEENTZAKO ETA ENPRESENTZAKO PRESTAKUNTZARAKO ESLEITUTAKO ZERBITZUA LUZATZEA**

Kontratazio, informazio sistemak eta kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: PERTSONA EKINTZAILE ETA ENPRESETARAKO PRESTAKUNTZA-ZERBITZUKO II. eta IV. loteak URTEBETEZ luzatzea (lehen luzapena eta bakarra), 2015/12/03tik 2016/12/02ra, ondoren aipatutako enpresei eta adierazten diren zenbatekoetan:
- II. Lotea: ARLO ESTRATEGIKOKO PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA, "GESTIONA XXI CONSULTING, S.L." merkataritza-sozietateari (IFK: B-95172102), zerbitzuaren 50 euro/orduko zenbatekoan, BEZa salbuetsita.
Lote horretarako urteko gehieneko aurrekontua 1.983,47 euro da (BEZa salbuetsita).

- IV. Lotea: SALTOKIETARAKO PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA, "GESTIONA XXI CONSULTING, S.L." merkataritza-sozietateari (IFK: B-95172102), zerbitzuaren 50 euro/orduko zenbatekoan, BEZa

**309.- PRÓRROGA DEL SERVICIO DE FORMACIÓN A PERSONAS EMPRENDEDORAS Y EMPRESAS.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (primera y única prórroga), desde el 03/12/2015 al 02/12/2016, los Lotes II, y IV del SERVICIO DE FORMACIÓN A PERSONAS EMPRENDEDORAS Y EMPRESAS a las empresas y por los importes que se señalan a continuación:

- Lote II: FORMACIÓN ESPECIALIZADA EN EL ÁREA ESTRATÉGICA a la mercantil "GESTIONA XXI CONSULTING, S.L." con C.I.F. nº B-95172102, por un importe de 50 euros/hora de servicio, exento de I.V.A.
El presupuesto máximo anual para este lote es de 1.983,47.-euros (exento de I.V.A.)

- Lote IV: FORMACIÓN ESPECIALIZADA A COMERCIOS a la mercantil "GESTIONA XXI CONSULTING, S.L." con C.I.F. nº B-95172102, por un importe de 50 euros/hora de servicio, exento de I.V.A.

salbuetsita.
Lote horretarako urteko gehieneko aurrekontua 2.314,05 euro da (BEZa salbuetsita).

El presupuesto máximo anual para este lote es de 2.314,05.-euros (exento de I.V.A.)

BIGARRENA: PERTSONA EKINTZAILE ETA ENPRESETARAKO PRESTAKUNTZA-ZERBITZUKO IX. eta XI. Loteak URTEBETEZ luzatzea (lehen luzapena eta bakarra), 2015/09/29tik 2016/09/28ra, ondoren aipatutako enpresei eta adierazten diren zenbatekoetan:

SEGUNDO: Prorrogar durante UN AÑO (primera y única prórroga), desde el 29/09/2015 al 28/09/2016, los Lotes IX y XI del SERVICIO DE FORMACIÓN A PERSONAS EMPRENDEDORAS Y EMPRESAS a las empresas y por los importes que se señalan a continuación:

- IX. LOTEA: NAZIOARTEKOTZE-ARLOKO PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA, "CONSULTING ORBERE, S.L.U." merkataritza-sozietateari (IFK: B-48733828), zerbitzuaren 48 euro/orduko zenbatekoan, BEZa salbuetsita.
Lote horretarako urteko gehieneko aurrekontua 1.322,31 euro da (BEZa salbuetsita).

- LOTE IX: FORMACIÓN ESPECIALIZADA EN EL ÁREA DE INTERNACIONALIZACIÓN a la mercantil "CONSULTING ORBERE, S.L.U." con C.I.F. nº B-48733828, por un importe de 48 euros/hora de servicio, exento de I.V.A.
El presupuesto máximo anual para este lote es de 1.322,31.-euros (exento de I.V.A.)

- XI. LOTEA: HIZKUNTZETAKO PRESTAKUNTZA, "CONCORDIDIOMAS, S.L." merkataritza-sozietateari (IFK: B-95200853), zerbitzuaren 36 euro/orduko zenbatekoan, BEZa salbuetsita.
Lote horretarako urteko gehieneko aurrekontua 2.479,34 euro da (BEZa salbuetsita).

- LOTE XI: FORMACIÓN EN IDIOMAS, a la mercantil "CONCORD IDIOMAS, S.L." con C.I.F. nº B-95200853, por un importe de 36 euros/hora de servicio, exento de I.V.A.
El presupuesto máximo anual para este lote es de 2.479,34.-euros (exento de I.V.A.).

HIRUGARRENA: 8.099,17 euroko beharrezko gastua ordaintzeko baimena ematea eta xedatzea, BEZa barne, aipatutako luzapenei aurre egiteko.

TERCERO: Autorizar y disponer el gasto necesario, por importe de 8.099,17.-€, exento de I.V.A. para hacer frente a las citadas prórrogas.

**<u>310.- GIZARTE ZERBITZUETAKO ARLOARENTZAT LEGEZKO AHOLKULARITZAKO ZERBITZUA</u>**

**<u>310.- PRÓRROGA DEL SERVICIO DE ASESORAMIENTO LEGAL PARA EL ÁREA DE SERVICIOS SOCIALES.</u>**

**LUZATZEA.**

Kontratazio, informazio sistemak eta kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: GETXOKO UDALEKO GIZARTE-ZERBITZUEN ARLORAKO LEGE-AHOLKULARITZAKO ZERBITZURAKO PATRICIA VERDES CEARRA andrearekin (NAN: 30.559.473-V) izenpetutako kontratua URTEBETEZ luzatzea (2. luzapena eta azkena), 2015/11/02tik 2016/11/01era, urteko 5.859,76 euroan gehi BEZaren %21i dagozkion 1.230,55 euro.

BIGARRENA: 5.859,76 euroko gehi BEZaren % 21i dagozkion 1.230,55 euroko beharrezko gastua ordaintzeko baimena ematea eta xedatzea, BEZa barne, aipatutako luzapenari aurre egiteko.

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (2ª prórroga y última), desde el 02/11/2015 al 01/11/2016, la vigencia del contrato suscrito con Dña. PATRICIA VERDES CEARRA con DNI: 30.559.473-V para el SERVICIO DE ASESORAMIENTO LEGAL PARA EL AREA DE SERVICIOS SOCIALES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO por importe de 5.859,76.-euros anuales más 1.230,55.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario, por importe de 5.859,76.-euros anuales más 1.230,55.-euros correspondiente al 21% de I.V.A. para hacer frente a la citada prórroga.

**311.- GIZARTE-HEZIKETAKO EKINTZAK ETA EKINTZA PSIKOSOZIALAK BURUTZEKO ZERBITZUA LUZATZEA.**

Kontratazio, informazio sistemak eta kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: GETXOKO UDALERRIKO GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOKO ZERBITZURAKO (2013) "AGINTZARI, S. COOP. DE INICIATIVA SOCIAL" merkataritza-sozietatearekin (IFK: F-48481923) izenpetutako kontratua URTEBETEZ luzatzea (lehenengo luzapena), 2015/09/29tik 2016/09/28ra, urteko 308.762,23 euroan eta BEZa salbuetsita.

**311.- PRÓRROGA DEL SERVICIO DE INTERVENCIÓN SOCIOEDUCATIVA Y SICOSOCIAL.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar por UN AÑO desde el 29-09-2015 al 28-09-2016 (primera prórroga), la vigencia del contrato suscrito con "AGINTZARI, S. COOP. DE INICIATIVA SOCIAL", con C.I.F. nº F-48481923 para el SERVICIO DE INTERVENCIÓN SOCIOEDUCATIVA Y SICOSOCIAL 2013 EN EL MUNICIPIO DE GETXO, por un importe de 308.762,23.-euros anuales exento de I.V.A.

BIGARRENA: 308.762,23 euroko beharrezko gastua ordaintzeko baimena ematea eta xedatzea, BEZa salbuetsita, aipatutako luzapenari aurre egiteko.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario, por importe de 308.762,23.-euros anuales exento de I.V.A. para hacer frente a la citada prórroga.

**312.- IKASTETXEETAN INDARKERIA SEXISTAREN AURKAKO PROGRAMA GARATZEKO ZERBITZUA LUZATZEA.**

**312.- PRÓRROGA DEL SERVICIO PARA EL DESARROLLO DEL PROGRAMA DE PREVENCIÓN DE LA VIOLENCIA SEXISTA EN LOS CENTROS ESCOLARES.**

Kontratazio, informazio sistemak eta kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: URTE BETEZ luzatuko da (lehenengo eta azken luzapena izango da), 2015-10-23tik 2016-10-22ra, GETXOKO IKASTETXEETAN INDARKERIA SEXISTA PREBENITZEKO PROGRAMA GARATZEKO ZERBITZUA emateko URTXINTXA ESKOLArekin, G48237556 IFK, sinatutako kontratuaren indarraldia, gehienez ere 17.100.- eurotan (HAMAZAZPI MILA ETA EHUN euro), BEZ (% 10 barne), aleko ondoko prezio hauetan:

- Ikasgela bakoitzeko prezioa: 818 € ikasgela bakoitzeko (ZORTZIEHUN ETA HAMAZORTZI euro ikasgela bakoitzeko), BEZ ordaintzetik salbuetsita egonik.

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (primera y única prórroga), desde el 23/10/2015 al 22/10/2016, la vigencia del contrato suscrito con URTXINTXA ESKOLA, con CIF G48237556, del SERVICIO PARA EL DESARROLLO DEL PROGRAMA DE PREVENCIÓN DE LA VIOLENCIA SEXISTA EN LOS CENTROS ESCOLARES DE GETXO, por un importe máximo de 17.100.-€ (DIECISIETE MIL CIEN euros), IVA del 10% incluido, por los precios unitarios que se señalan a continuación:

- Precio/aula: 818€/aula (OCHOCIENTOS DIECIOCHO euros/aula), exento de IVA.

BIGARRENA: Luzapen horri aurre egiteko behar den gastua, 17.100 euro (BEZ barne), baimentzea eta xedatzea.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario, por importe de 17.100.-euros, I.V.A. Incluido para hacer frente a la citada prórroga.

**313.- IKASTETXEETAKO LHKO 6. ETA DBIKO 2. IKASMAILETAN**

**313.- PRÓRROGA DEL SERVICIO PARA EL DESARROLLO DEL**

**AFEKTIBITATE ETA SEXUALITATE HEZKUNTZA IRAKASTEKO PROGRAMA GAUZATUKO DUEN ZERBITZUA LUZATZEA**

Kontratazio, informazio sistemak eta kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: IKASTETXEETAN AFEKTU ETA SEXU HEZKUNTZAKO PROGRAMA GARATZEKO ZERBITZUA LEHEN HEZKUNTZAKO 6. mailan eta DBHko 2. mailan emateko SAIOA HERNÁNDEZ CASTROrekin (SEXUNE), 30.695.648-D NAN, sinatu zen kontratua URTE BETEZ luzatuko da (lehenengo eta azken luzapena izango da), 2015-12-02tik 2016-12-01era, gehienez 17.000.- eurotan (HAMAZAZPI MILA eurotan), BEZaren % 10a barne, ondoko aleko prezio hauetan:

- Ikasgela bakoitzeko prezioa: 450€/ikasgela (LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR euro ikasgelako), gehi 45.- euro, BEZaren % 10arenak.
- Gurasoentzako hitzaldi bakoitzeko prezioa: 100 € (EHUN euro gurasoentzako hitzaldi bakoitzeko), gehi 10.- euro, BEZaren % 10arenak.

Zerbitzu honen gauzapen materiala 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetan zehar egingo da.

BIGARRENA: Luzapen horri aurre egiteko behar den gastua, 17.000 euro (BEZ barne), baimentzea eta xedatzea.

**PROGRAMA DE EDUCACIÓN AFECTIVO-SEXUAL EN LOS CENTROS ESCOLARES, EN 6º DE PRIMARIA Y 2º DE LA ESO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (primera y única prórroga), desde el 02/12/2015 al 01/12/2016, la vigencia del contrato suscrito con SAIOA HERNÁNDEZ CASTRO (SEXUNE), con DNI 30.695.648-D, del SERVICIO PARA EL DESARROLLO DEL PROGRAMA DE EDUCACIÓN AFECTIVO-SEXUAL EN LOS CENTROS ESCOLARES, EN 6º DE PRIMARIA Y 2º DE LA ESO, por importe máximo de 17.000.-€ (DIECISIETE MIL euros), IVA del 10% incluido, por los precios unitarios que se señalan a continuación:

- Precio/aula: 450€/aula (CUATROCIENTOS CINCUENTA euros/aula), más 45.-euros correspondientes al 10% de IVA.
- Precio/charla padres y madres: 100€ (CIEN euros/charla padres y madres), más 10.-euros correspondientes al 10% de IVA.

La ejecución material del servicio se llevará a cabo a lo largo de los cursos escolares 2014-2015 y 2015-2016.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario, por importe de 17.000.-euros, I.V.A. Incluido para hacer frente a la citada prórroga.

**314.- HERRI-IKASTETXEETAKO KIROLDEGIAK ETA IKASKETA-**

**314.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DEL**

**GELAK ESKOLA-ORDUETATIK KANPOAN ZAINTZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO ESPEDIENTEA HASI, BALDINTZA-AGIRIAK ONETSI ETA GASTUA EGITEA BAIMENTZEA.**

Kontratazio, informazio sistemak eta kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: ESKOLA ORDUTEGITIK KANPO IKASTETXEETAKO IKASKETA GELAK ETA KIROL INSTALAZIOAK KUDEATZEKO ETA KONTROLATZEKO ZERBITZUA prozedura irekiaren bidez adjudikatzeko arauzko izapidetzea hastea baimentzea.

Kontratuaren prezioa 140.000 euro izango da, BEZaren % 21 barne, kontratuak irauten duen bi urteetarako, eta kopuru hori lizitatzaileek bere eskaintza ekonomikoetan hobetu ahal izango dute.

Kontratuaren iraupena 2 URTEKOA izango da, administrazio kontratua formalizatzen den egun beretik aurrera zenbatuta. Bi denboraldiz segidan luzatu ahal izango da, denboraldi bakoitza urtebetekoa izanik. Kontratuaren iraupena, guztira, ezin da izan 4 (LAU) URTE baino handiagoa. Administrazio kontratua ezin da sinatu harik eta 2016ko urtarrilaren 4a igaro arte, hau da, aurreko kontratua amaitu arte. Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bat eginaren 23. artikuluan xedatutakoa bete behar dute luzapenek. Kontratazio Organoak hartu behar du luzapena egiteko erabakia, berariaz, eta adjudikaziodunak nahitaez bete

**SERVICIO DE GESTIÓN Y CONTROL DE AULAS DE ESTUDIO E INSTALACIONES DEPORTIVAS DE CENTROS EDUCATIVOS FUERA DEL HORARIO LECTIVO, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Abierto, del SERVICIO DE GESTIÓN Y CONTROL DE AULAS DE ESTUDIO E INSTALACIONES DEPORTIVAS DE CENTROS EDUCATIVOS FUERA DEL HORARIO LECTIVO.

El precio del contrato será de 140.000, euros, 21% de I.V.A. incluido, para los dos años de contrato, cantidad que podrá ser mejorada por los licitadores en sus ofertas económicas.

La duración del contrato será de 2 AÑOS, contados desde el mismo día la formalización del contrato administrativo, siendo susceptible de prórroga por dos períodos sucesivos de un año de duración cada uno de ellos, sin que pueda la duración total del contrato exceder de los 4 (CUATRO) AÑOS. El contrato administrativo no podrá firmarse hasta pasado el día 4 de enero de 2016, fecha de finalización del contrato anterior. Las prórrogas se acomodarán a lo dispuesto en el artículo 23 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, acordándose de forma expresa por el Órgano de Contratación y siendo obligatorias para el adjudicatario.

beharko du.

Kontratua sinatzea 2016ko ekitaldian kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean egongo da.

La celebración de dicho contrato queda supeditada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el ejercicio 2016.

BIGARRENA: Administrazio kontratazioa zuzendu beharreko administrazio baldintza zehatzen eta baldintza teknikoen pleguak onartzea.

SEGUNDO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

HIRUGARRENA: Aipatutako zerbitzua, prozedura irekian, adjudikatzeko arauzko izapidea hasteko baimena ematea.

TERCERO: Autorizar el inicio de tramitación reglamentaria para la adjudicación, por el Procedimiento Abierto, del servicio de referencia.

LAUGARRENA: Beharrezko gastua egiteko baimena ematea (140.000 euro), aipatutako zerbitzua kontratatzetik sortutako betebeharrei aurre egiteko.

CUARTO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe de140.000 euros.

*Baimen hori 2016. urteko ekitaldian kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintzapean ematen da.*

*Dicha autorización queda supeditada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el ejercicio 2016.*

**315.- CISCO HORNIDURAREN ARTAPENEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO ESPEDIENTEA HASI, BALDINTZA-AGIRIAK ONETSI ETA GASTUA EGITEA BAIMENTZEKO PROPOSAMENA.**

**315.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO DEL EQUIPAMIENTO CISCO, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

Kontratazio, informazio sistemak eta kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: Arauzko tramitazioaren hasiera baimentzea GETXOKO UDALARENTZAKO CISCO EKIPAMENDUAREN MANTENTZE zerbitzua adjudikatzeko, prozedura irekiaren bidez. Haren lizitaziorako aurrekontua, BEZ (% 21) barne, 57.879,26 eurokoa izango da (BERROGEITA HAMAZAZPI MILA

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Abierto, del SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE EQUIPAMIENTO CISCO PARA EL AYUNTAMIENTO DE GETXO, cuyo presupuesto de licitación, IVA del 21% incluido, será de 57.879,26€

ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI euro ETA HOGEITA SEI zentimo), urtean 28.939,63 € izanik (HOGEITA ZORTZI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HEMERETZI euro ETA HIRUROGEITA HIRU zentimo).

(CINCUENTA Y SIETE MIL OCHOCIENTOS SETENTA Y NUEVE euros y VEINTISÉIS céntimos), a razón de 28.939,63€ (VEINTIOCHO MIL NOVECIENTOS TREINTA Y NUEVE euros y SESENTA Y TRES céntimos) anuales.

Kontratua egikaritzeko epea 2 (BI) URTEKOA da, kontratua sinatu den egunetik hasita, baina inoiz ez 2016-02-01a baino lehenago. Kontratua URTE BATEKO eperako luzatu ahalko da BI (2) aldiz jarraian, baina kontratuaren iraupen totalak ezin du izan LAU (4) urte baino luzeagoa.

El plazo de ejecución del contrato será de 2 (DOS) AÑOS, a contar desde la fecha de la firma del contrato, si bien nunca antes del día 01/02/2016. El contrato será prorrogable por dos DOS (2) periodos sucesivos de UN (AÑO) cada uno, sin que pueda la duración total del contrato exceder de los CUATRO (4) años.

BIGARRENA.- Administrazio-kontratazioa zuzendu behar duten administrazio-baldintza zehatzen eta baldintza teknikoen pleguak onestea.

SEGUNDO.- Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

HIRUGARRENA.- Zerbitzu hori kontratatzeak dakartzan betebeharrei aurre egiteko behar den gastua baimenduko da, 57.879,26 eurotan (BERROGEITA HAMAZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI euro ETA HOGEITA SEI zentimo), urtean 28.939,63 € izanik (HOGEITA ZORTZI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HEMERETZI euro ETA HIRUROGEITA HIRU zentimo).

TERCERO.- Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe de 57.879,26€ (CINCUENTA Y SIETE MIL OCHOCIENTOS SETENTA Y NUEVE euros y VEINTISÉIS céntimos), a razón de 28.939,63€ (VEINTIOCHO MIL NOVECIENTOS TREINTA Y NUEVE euros y SESENTA Y TRES céntimos) anuales.

Aurreko guztia gorabehera, kontratuaren egikaritzea 2016. urterako aurreikusita dagoenez eta urte horretarako udal aurrekontua oraindik onetsita ez dagoenez, konpromisoa 57.879,26 euroko gastua egitea da (BERROGEITA HAMAZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI euro eta HOGEITA SEI zentimo), urtean 28.939,63 euro (HOGEITA ZORTZI MILA

No obstante lo anterior, dado que la ejecución del contrato está prevista para el año 2016, para el cuál no hay aún Presupuesto municipal aprobado, el compromiso de gasto, por importe de 57.879,26€ (CINCUENTA Y SIETE MIL OCHOCIENTOS SETENTA Y NUEVE euros y VEINTISÉIS céntimos), a razón de 28.939,63€ (VEINTIOCHO MIL NOVECIENTOS TREINTA Y NUEVE euros y SESENTA Y TRES céntimos)

BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HEMERETZI euro ETA HIRUROGEITA HIRU zentimo) %21eko BEZ barne. Konpromisoa baldintza honekin lortuko da: esleipena egingo da kontratuaren egikaritzea hasteko orduan behar besteko krediturik badago. Bestela, eten egingo da.

anuales, IVA del 21% incluido, se adquiere con la siguiente especialidad: que la adjudicación habrá de realizarse bajo condición suspensiva de la existencia de crédito suficiente en el ejercicio de inicio de la ejecución contractual.

**316.- GARBIGUNE MUGIKORRA KUDEATZEKO ETA LAN MUNDUAN SARTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN KOLEKTIBOAK SUSTATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIA HUTSIK GERATU DELA ADIERAZTEA.**

Kontratazio, informazio sistemak eta kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

BAKARRA: GARBIGUNE MUGIKORRA KUDEATZEKO ETA LAN MUNDUAN SARTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN KOLEKTIBOAK SUSTATZEKO ZERBITZUAREN prozedura irekia HUTSIK GERATU DELA ADIERAZTEA, kontuan izanik aurkeztu den eskaintza bakarrak pleguetan finkatutako lizitazio-tasa gainditu duela.

**316.- DECLARAR DESIERTO EL PROCEDIMIENTO ABIERTO PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE GESTIÓN DEL PUNTO LIMPIO MÓVIL Y PROMOCIÓN DE COLECTIVOS CON DIFICULTADES PARA EL ACCESO AL MUNDO LABORAL.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

ÚNICO: DECLARAR DESIERTO el Procedimiento Abierto, del SERVICIO DE GESTIÓN DEL PUNTO LIMPIO MÓVIL Y PROMOCIÓN DE COLECTIVOS CON DIFICULTADES PARA EL ACCESO AL MUNDO LABORAL, teniendo en cuenta que la única oferta presentada ha superado el tipo de licitación fijado en los Pliegos.

**LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK**

**317.- EAJ-PNV, PP, GUK, EH BILDU ETA C'S UDAL TALDE POLITIKOEI ZEINI BERE DIRU-IZENDAPENA EMATEKO GASTUA EGITEA BAIMENDU ETA XEDATZEA.**

Lehendakaritza Arloko zinegotzi

**PRESIDENCIA Y SERVICIOS SOCIALES**

**317.- AUTORIZAR Y DISPONER EL GASTO PARA LA ASIGNACIÓN A FAVOR DE LOS GRUPOS POLÍTICOS MUNICIPALES (EAJ-PNV/PP/GUK/EH BILDU/C'S).**

A propuesta de la concejala responsable

arduradunak proposatuta, ondorengoa erabaki da:

Udal talde politikoei (EAJ-PNV/ PP / GUK / EH BILDU / C´s) dagozkien 2015eko ekainaren 14tik abenduaren 31era arte dagozkien diru-esleipenen gastua baimendu eta xedatu, zenbatekoa 69.442,5 €koa izanik, xehetasun honen arabera:

del Área de Presidencia, se acordó:

Autorizar y disponer el gasto por el importe de 69.442,5 €, en concepto de asignación a grupos políticos municipales (EAJ-PNV/ PP / GUK / EH BILDU / C´s) desde el 14 de junio hasta el 31 de diciembre del 2015, con el siguiente desglose:

| | | |
|---|---|---|
| Getxoko EAJ-PNV Udal Taldea | G-95813424 | 18.222,5 € |
| Grupo Municipal del Partido Popular de Getxo | G-95655890 | 14.282,5 € |
| GUK Getxo, Grupo Municipal sin ánimo de lucro | G-95814596 | 13.297,5 € |
| Getxoko EH BILDU Udal Taldea | G- 95815593 | 13.297,5 € |
| Grupo Municipal Ciudadanos Getxo (C´s) | G-95812194 | 10.342,5 € |

**318.- ZAINDUZ PROGRAMA GARATZEAGATIK BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI EGINDAKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA ONESTEA, FAMILIAREN BARRUKO MENDEKOTASUNARI ERANTZUTEARREN.**

Gizarte Zerbitzuetako arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

1.- Bizkaiko Foru Aldundiari-Gizarte Ekintza Sailari diru-laguntza eskatzeko hartutako erabakia ondorengo foru-programa garatzeko: Autonomia pertsonala sustatzeko jardueren bidez, boluntariotzaren bidez eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzako laguntza psikosozialen bidez familia barruan mendetasunari laguntzeko programa, Zainduz Foru Programa.

**318.- APROBACIÓN DE LA SOLICITUD DE SUBVENCIÓN A LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA PARA EL PROGRAMA DE ATENCIÓN A LA DEPENDENCIA EN EL MEDIO FAMILIAR, PROGRAMA FORAL ZAINDUZ.**

A propuesta de la Concejala Responsable del Área de Servicios Sociales, se acordó:

1º.- Aprobar la solicitud de subvención a la Diputación Foral de Bizkaia-Departamento de Acción Social para el desarrollo del Programa Foral de atención a la dependencia en el medio familiar mediante actuaciones de prmoción de la autonomía personal, voluntariado y de apoyo psicosocial a las personas cuidadoras de personas dependientes, Programa Foral Zainduz".

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK, INGURUMENA ETA ONDARE ETA ETXEBIZITZA**

**319.- BASAGOITI ETORBIDEKO 62KO ERAIKINA OSO-OSOA BIRGAITZEKO OBRAK AMAITZEARREN ESKATUTAKO OBRA-BAIMENAREN LUZAPENA EMATEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

I.-
LEHENENGOA: JUAN ANGEL ZALBIDEA IGUAL jaunari, BASAGOITI 62ko jabe erkidegoaren ordezkaritzan, eskatu duen luzapena emango zaio, HIRU HILABETEKOA, udal mugarte honetako Basagoiti etorbidean dagoen higiezinaren birgaikuntza integraleko obrak amaitzeko. Obra horiek aldatzeko baimena Tokiko Gobernu Batzarraren 2014ko azaroaren 18ko 426. erabakiaren bidez eman zen.
BIGARRENA: Gogorarazten zaie obrak amaitzean Tokiko Gobernu Batzarraren 2014ko azaroaren 18ko 426. erabakian aipatutako dokumentazio hau aurkeztu beharko dela. Hauxe da:

"Proiektuan adierazitako obrak egiten direnean, udalari jakinarazi beharko diote egiaztatzeko, alde batetik, eraikinen ikuskapen teknikoan ikusitako akatsak konpondu direla, eta bestetik, Aitor Elorduy Linage arkitektoak egindako azken txostena, Alkatetzaren 4098/2013 Dekretuaren bidez eskatutakoak, eta espedientea artxibatu ahal izateko. Horretarako, ondorengo dokumentazioa aurkeztu

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS, MEDIO AMBIENTE Y PATRIMONIO Y VIVIENDA**

**319.- CONCESIÓN DE PRÓRROGA PARA LA FINALIZACIÓN DE LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN INTEGRAL DEL INMUEBLE SITO EN LA AVDA. BASAGOITI, 62.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

I.-
PRIMERO: Conceder a D. JUAN ANGEL ZALBIDEA IGUAL E/R CCPP BASAGOITI 62 una prorroga solicitada de TRES MESES para la finalización de las obras de rehabilitación integral del inmueble situado en la Avenida de Basagoiti, de este término municipal, obras cuya modificación fue autorizada por Acuerdo 426 de 18 de noviembre de 2014, de la Junta de Gobierno Local.
SEGUNDO: Se les recuerda que al finalizar las obras se deberá de presentar la siguiente documentación señalada en el Acuerdo 426 de 18 de noviembre de 2014 de la Junta de Gobierno Local y que se transcribe a continuación:

"Una vez realizadas las obras descritas en el Proyecto deberán comunicarlo al Ayuntamiento a fin de comprobar si se han solucionado las deficiencias observadas en la ITE y su dictamen final realizada por el Arquitecto D. Aitor Elorduy Linage, requeridas mediante Decreto de Alcaldía 4098/2013 y proceder al archivo del expediente. Para ello deberán presentar la siguiente documentación:

beharko dute:
a) Teknikari eskudunak izenpetutako eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsitako obra amaierako likidazioa eta ziurtagiria.
b) Berritutako fatxada eta elementuen koloretako argazkiak.
c) Dagokion eraikinen ikuskapen teknikoan detektatutako akatsak zuzentzeko ziurtagiria, III. eranskineko ereduaren arabera, paperean eta XML artxiboan eta PDF formatuan CD euskarrian. Ziurtagiria obra-amaierako ziurtagiria sinatzen duen langile fakultatiboak sinatuko du (azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duena, eta haren aldaketa 80/2014 Dekretuaren bidez)."

HIRUGARRENA: Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, egokiak diren errekurtsoak adieraziz.

LAUGARRENA: Ekonomia Arloari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

a) Liquidación y certificado final de obra suscrito por Técnico Competente y visado por el Colegio Oficial correspondiente.
b) Fotografías en color de las fachadas y elementos reformados.
c) Certificado de subsanación de deficiencias detectadas en la ITE correspondiente, según el modelo del anexo III, en papel y en archivo XML y en formato PDF en soporte CD. El certificado lo firmará el personal facultativo firmante del certificado final de obra, (de acuerdo lo establecido en el artículo 16, del Decreto 241/2012, de 21 de noviembre, por el que se regula la Inspección Técnica de los Edificios en la Comunidad Autónoma del País Vasco y su modificación por el Decreto 80/2014)."

TERCERO: Notificar este acuerdo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

CUARTO: Dar traslado al Área económica a los efectos oportunos.

**320.- BOSGARRENA KALEKO 18KO ETXEBIZITZA BAKUNEKO ERAIKINA HANDITZEKO ETA ESTALKIA BERRIZTATZEKO ESKATUTAKO OBRA-BAIMENAREN ALDAKETA ONARTUTA EMATEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: IÑAKI RAMOS GARATE jaunari Tokiko Gobernu

**320.- CONCESIÓN DE MODIFICACIÓN DE LA LICENCIA DE OBRAS DE REFORMA DE LA CUBIERTA Y AMPLIACIÓN DE LA VIVIENDA UNIFAMILIAR SITA EN C/BOSTGARRENA, 18.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO: Conceder a D. IÑAKI RAMOS GARATE, la modificación

Batzarrak 2013ko abenduaren 26an egindako bilkura arruntean 502. erabakiz eman zion lizentzia aldatzeko baimena emango zaio, Bosgarrena kaleko 18.ean dagoen familia bateko etxebizitza handitzeko eta gainaldea berriztatzeko obrak egiteko, aurkeztu duen egikaritze proiektuarekin bat etorriz, arkitektoa den Jakinda de Goyarzu Ciruelos andreak idatzia eta EHAEOak 2015eko ekainaren 29an onetsia. Idazkian adierazitakoa bete beharko du.

Zuinketa eskatu behar duela kontuan izan behar da.

Aprobetxamendua doitzeko eragiketak lizentzia hori emateko egin zen espedientean eginda daude; beraz, une honetan ezin da beste doikuntza bat egin aprobetxamenduan.

Gainontzeko baldintzak emandako lizentzian azaldutako berak izan beharko dira.

BIGARRENA: Erabaki honen eta beraren aurka egin daitezkeen errekurtsoen berri emango zaio eskatzaileari, ondorio egokietarako.

HIRUGARRENA: Erabaki hau Ekonomia Arloari helaraztea, jakin dezan eta dagozkion ondorioak izan ditzan. Aurkeztutako egikaritze materialeko aurrekontua 173.561,37 € da.

solicitada para la licencia concedida por Acuerdo nº 502 de la Junta de Gobierno Local, adoptado en sesión ordinaria celebrada el 26 de diciembre de 2013, para realizar obras de reforma de la cubierta y ampliación de la vivienda unifamiliar sita en c/ Bostgarrena 18, de acuerdo con el Proyecto de Ejecución, presentado, redactado por la Arquitecta Dña. Jakinda de Goyarzu Ciruelos , visado por el C.O.A.V.N. con fecha 29 de Junio de 2.015, debiendo ajustarse a lo indicado en su escrito.

Deberá tenerse en cuenta que deberá solicitar el replanteo.

Las operaciones de ajuste de aprovechamiento ya se han realizado en el expediente anterior por el cual se concedió la licencia mencionada, por lo que no cabe plantearse actualmente un nuevo ajuste de aprovechamiento.

El resto de las condiciones serán las mismas que las indicadas en la licencia concedida.

SEGUNDO: Dar traslado del presente Acuerdo así como de los recursos que proceden contra el mismo al solicitante, a los efectos oportunos.

TERCERO: Dar traslado del presente Acuerdo al Área económica para su conocimiento y a los efectos oportunos. El Presupuesto de Ejecución Material presentado asciende a la cantidad de 173.561,37 €.

**321.- LEHENENGO ERABILERAKO BAIMENA ESKATUTA, MAIDAGAN KALEKO 60D ERAIKINEKO ETXEBIZITZA BAT BERRIZTATZEKO EGINDAKO OBRARENTZAT EMATEA.**

**321.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN PARA LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN DE UNA VIVIENDA EN EL EDIFICIO SITO EN LA C/MAIDAGAN, 60D.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.-
I.- IÑIGO ZUAZO AZCONA jaunari, RETURETA S.L.ren izenean eta beraren ordez, Maidagan kaleko 60 Dn dagoen eraikinean etxebizitza bat gaitzeko obrak lehen aldiz erabiltzeko lizentzia ematea. Obra horiek Tokiko Gobernu Batzarrak 2009-11-10ean egindako bilkura arruntean emandako 702. erabakiaren bidez baimendu ziren.

Etxebizitza horren azalera erabilgarria 490,70 m2 da gutxi gorabehera.

